

## ANALISIA



## Erremediorik ez dute, guk ere ez



**Mikel Asurmendi**  
@masurmendi

Manuel Castellsen *Comunicación y poder* liburuko "Ikonosferak inguratutik bizi da egungo jendea. Geruza artifizial mass mediatiko honetan 'telebista' da ikuskari eraginkorra" esapidea gogoratu zait. "Irratia" gehitu dut analisia hau gauzatzean.

Irratitik entzundako hainbat mezu ditut iritzi ezpal. Iragarki batek, udaldia pasa ostean, etxearen segurtasun bermea eskaini zigun negualdirako. Itsasaldeko "bigarren etheen jabe"-ei zuzendua. Hain zen lotsagarria, ezen mezuaren literalitasuna aldatu "behar" izan zutela atoa.

Aurtengo eskoletako matrikulazio kanpainan, eskola pribatuaren iragarkiak aditzera eman duenez, haur ikasleek "ingeniaria, medikua edota abokatu" izatea dute helburu, euren ahotsez esana. Eskola publikoetakoek ere, antzera. "Aktorea" izatea ere euren nahian dago. Inork ez du "suhiltzaile, iturgin edo okina" izan nahi. Horiek guztiak, tertulia saioen iragarkien tartean entzunak dira, artean tertulia-kide bakoitzak bere moral eta etikaren "irakaspenak" ematen dituelarik. Euskadi Irratitik (EI) jasotakoak dira mezuok.

Ei-ko elkarriketan, M. A. kazetariaren galderari honela erantzun dio gipuzkoar foru Kultura diputatu D. I. -k: "Bada, egia esango dizut...". Laugarren galdera zen,

aurrekoei erantzunda "gezurrezkoak" ziren nonbait. Badakit, "dialektika" kontua da. Kasuon, politikar(iar)en "logika" da.

Lurrina iragartzen duen telebistako iragarki bat ere dut gogoan. Emakumearen dohain fisikoak erakutsi ondoren, gizonen begiradapean, batek "ipurdiko bat" ematen dio besteari. Irudi batek eskola-heziketaren mila ordu ezaba dezake instant batez.

Castellsek duela 30 urte iragarri "hedabideak vs komunikabideak" bete da: "Mendebaldeko gizarte modernoaren komunikazio ekosisteman ikus-entzunezko ikuskariak osatzen dute gure mundu irudikorra. Pentsatzeko gure ahalmena komunikabideetako irudien eta iragarkien indarrez itsutua zatekeen engoitik".

"Politika"-ra etorrira: espainiar edo frantziar gobernuen nahiez ez bada, estatu bien justiziaren aginduz legea errespetatu behar da absolutuki. Espainiako Erresumako Konstituzioaren 155. artikulua aplikazioak ez dauka debeku mugarik. Frantziako Macron presidenteari Korsikara bidaiari frantsezen aro berriaren heina eman du aditzera: herri hizkuntzak legearen markoan "errespetatuak" izanen dira.

Boteredunak mintzo dira, hedabideetatik betiere, euren komunikazioaren kodeen markoan ari dira, eta guk, mass medien menpekook, ezin "gurea" ezarri inola ere. Gaitza da analisiaren emaitza. Haiek "gure arazoetarako" erremediorik ez dute, guk ere ez! ■

## EKONOMIAREN TALAIAN

## Pauso erdirik ez atzera



**Juan Mari Arregi**

Joan den astea historikoa izan zen, bai Euskal Herrian eta baita Espainiako Estatu osoan ere. Mobilizazio jendetsu eta handiak egin dira pentsionisten eta emakumeen eskutik. Biek jarri dute mahai publikoaren gainean milioika pentsionistei eragiten dieten murrizketa ekonomiko eta sozialak, hala nola milioika emakumeri eragiten dien berdintasun falta. Egoera horiek, bestea beste, Estatuaren eta administrazioen inbertsio publikoa eskatzen dute.

Asteak publizitate hutsa diren irudiak ere erakutsi dizkigu: euren esku irtenbide politiko, ekonomiko eta sozialen zati handi bat dutenek (gobernuak, parlamentuak...), emakume eta pentsionisten kezka eta aldarrikapenekin bat egiten dutela diote. Eta ikusi ditugu hedabideetan lazo morea soinean zutela, eta emakumeen edo pentsionisten alde adierazpenak egiten. Marea sozial eta feminista, oraingoan hain izan da handia, inork ez duela argazkitik kanpo geratu nahi izan. Botoek balio handia dute, eta denek erakarri nahi izan dute beren sorora gertaturikoa.

Ez gaitezen engaina. Martxoaren 8a igaro da, mobilizazio jendetsuak ere bai, eta dinamika horrek denbora luzez ezin duela iraun uste duten politikariak neguko kuarteletara itzuli dira. Mobilizazio sozial, feminista eta herrikoiek aurrera jarraitu behar dute derrigor, pauso erdirik atzera egin gabe. Garaia da politikari eta gobernu horiek euren konpromisoak bete eta irtenbide politikoak bila ditzaten kalean dauden eskaerei erantzuteko. Gezurrea da ez dagoela dirurik pentsio duinentzako eta berdintasunaren bidean soldata arrakalarekin amaitzeko. Arazoa da nola banatzen ditugun aurrekontuak eta zein lehentasun ematen diegun. Pauso erdirik ez atzera!